

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Agurain

Aurkibidea

Udalerria: Agurain

Sarrera



Arabako ipar-ekialdean kokaturik dago Agurain udalerria, Gasteiztik 26 kilometro ingurura. Arabako Lautadako kuadrillako burua da. Arabako laugarren herririk jendetsuena da, Gasteiz, Laudio eta Amurrioren atzetik.

Erdi Aroaz geroztik toki estrategikoa izan da Agurain, bertatik pasatzen baitzen Europa osoan garrantzitsua den Done Jakue bidearen barne ibilbidea (kostaldetik ez zihoana); gainera, Gaztelako eta Nafarroako erresumen artean zegoen.

Argazkia: [Pedro J. Pacheco](#).

- **Biztanleak:** 5.155
- **Euskaldunak:** %27,49

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **1**
- Zintak: **1**
- Pasarteak: **0**
- Transkribatutakoak: **0**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **0**

Proiektuak

- Gasteizko Euskararen Ahotsak

Hizlariak

Anjel Mari Olalde Arrieta *Buka* (1955)



1955ean jaio zen Agurainen. Butanero lanetan aritu zenez, 'Buka' izengoitia jaso zuen, eta horrela da ezaguna herrian. Ama Zuazokoa zuen, aita Aguraingoa. Gasteizko seminarioan egin zituen apaizgai ikasketak. Politika kontuak zirela eta, kartzelan egon zen sei hilabetez 1980an, eta bertan hasi zen euskara ikasten. Ondoren, Ezkio-ltsasoko baserri batean egon zen sei hilabetez. Euskara irakasle bihurtu zen gero, Agurainen, eta Arabako AEK-ko arduraduna ere izan zen 2004. urtera arte. Araba Euskaraz jaiaren jaiotzan parte hartu zuen, eta elkarrizketa egin genionean bertako zenbait proiektutan zebilen murgilduta. [Gasteizko Ahotsak](#) proiekturako elkarrizketatua.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2024-04-01

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com